

Gotorlekuko ihesaldia eleberri bilakatu du Luis Gardek; euskaraz eman zuen, iaz, eta orain gaztelaniaz, 80 orrialde gehiagorekin; Ezkaban hildakoak omendu ditu Txinpartak.

Ezkabako memoria bizia

Edume Elizondo Iruñea

Duela 78 urte gertatu zen. 1938ko maiatzaren 22an. Iruñe ondoko Ezkabako gotorlekuan preso ziren 795 lagunek ihes egin zuten. Haietatik 206 tiroz hil zituzten mendian, eta 586, berriaz, atxilotu. Ihesaldia antolatzea leporatuta, gainera, hamalau pertsona fusilatu zituzten. Ihes egin zutenetarik hiruk bakarrik lortu zuten muga pasatzea: Jovino Fernandezek, Jose Marinerok eta Valentín Lorenzok. Laugarrena ere izan ote zen iradoki zuen Fermin Ezkietak, Pamielarekin 2013an argitaratutako *Los fugados del Fuerte de Ezkaba, 1938* (Ezkabako Gotorlekuko iheslariak, 1938) liburuan.

Iaz, Pamielak plazaratutako bertze liburu batean, Ezkabako gertatutakoa eleberri bilakatu zuen Luis Garde idazle iruindarrak. Duela urtebete euskaraz emandako *Ehiztariaren isialdia* gaztelaniaz argitaratu du orain, *El silencio del cazador* izenburupean, eta 80 orrialde gehiagorekin. «Ezkabakoa memoria bizia da, beti bada hari berri bati tira egiteko aukera», nabarmendu du egileak, ihesaldiaren urteurrenaren harira.

Memoria bizia delako, hain zuzen ere, Ezkabako preso egondako guztiek jaso zuten herritarren omenaldi beroa, igandean. Txinparta elkarteak antolatu zuen, urtero bezala. Frankismoaren eskutik espetxe bilakaturako gotorlekua da Nafarroako memoria historikoaren mapan toki nagusietako bat. Horregatik, Ezkaba mendiko magala Garderen eleberriko agertokia baino gehiago da. «Gaztetan besta egiteko toki izan zen niretzat Ezkaba mendiko inguru hori; ongi pasatzeko tokia; han gertatu zenak jo ninduen arte. Talka baten modukoa izan zen, eta horrek eraman ninduen eleberria idaztera», adierazi du.

1938. urteko ihesaldian parte hartu zuten bi gizon dira Garderen obrako protagonista. Haien arteko elkarrizketa osatu du egileak, haien pentsamenduen, ideologiaren eta ihesaldiaren ingurukoak azaleratzeko. Haiekin batera, idazlearen *alter ego*-a den narratzailea da liburuko hirugarren pertsonaia nagusia. Gaur egungo ikuspuntutik, Ezkabako gertatutakoari buruzko ikerketa abiatzen du, eta mahai gainean jartzen ditu ihesaldiari, espetxeari eta han gertatutako guztiei buruzko hamaika galdera.

Bada guztien artean nabarmen zuten den galdera bat: ihesaldian parte hartu zuten presoekin atzetik joan zirenen ingurukoak, alegia. Presoak harrapatzerantz mendira jo zuten haiei buruzkoa. «Herritar soilak ere parte hartu zuten ehizaldi hartan; altxamendua gertatu zen une beretik aritu ziren herritar soilak frankismoak jomugan jarritakoen atzetik. Ohi-



«Herritar soilak ere parte hartu zuten ehizaldian; aritu ziren frankismoak jomugan jarritakoen atzetik»

Luis Garde
Idazlea

ko bizimodua bazter utzi, eta egun batetik bertzerantz, eskopeta hartu, eta bertze herritarrek harrapatzerantz jo zuten mendira».

Herritar soilak zerk bilakatzen duen ehiztari; hori da Garderen bere liburuan azaldu duen gogotagai nagusietako bat. «Ez zen bakarrik Ezkabako gertatu; baina zergatik? Sinetsi nahi izaten dugu guk ez genukeela horrelakorik eginen, baina benetan hala da?». Galderak eta hausnarketarako gaiak mahai gainean utzi ditu idazleak, ia 500 orrialdetan.



Igandeko omenaldian herritarrek botilak eraman zituzten Ezkabara, han hildakoak oroitzeko. IDOIA ZABALETA / ARGAZKI PRESS

Iragana ezagutzeko eta haren berri emateko beharra nabarmendu du Gardek. «Ezkabako gertatutakoari buruz ia egunero ari gara datu berriak ezagutzen; datuak ezkutatuta egon dira; ikusi dugu zeinen zaila den erreprezioaren gauzatzailen izenak hainbat kaletatik kentzea; iragana tapatzeko hainbertzeko interesa dagoenean, argi dago iragan hori ez dagoela hila; memoria bizia dela», berretsi du.

Botilen hilerria

1938ko ihesaldia ez da Ezkabako gotorlekuko espetxearen historian gertaera beltz bakarra. 1942tik 1945era hildako 131 preso errepublikazalaren gorpuak lurperatu zituzten gotorlekuko hilerrian. Jose Maria Jimeno Jurio historialariak bazuen haren krokis bat, eta funtsezkoa izan zen 2007an Aranzadiko kideek hasitako indusketak egiteko.

Preso gehienak tuberkulosiak jota hil ziren. Gorpu haietako anitzen ondoan botilak lurperatu zituzten. 72. hilobikoak ondoko mezua gordetzen zuen idatzita, paper puska batean: «Ezkabako kartzela ospitalea. Iruñea. Andres Gangoiti Cuesta hemen hil zen, biriketako tuberkulosiak jota. 23 urte zituen, ogibidez marinela zen, Gorlizkoa zen (Bizkaia). Bilboko Gregorio Revuelta 30 kalean bizi zen, Lorenzo eta Luciaren semea zen. Preso honi 30 urteko zigorra ezarri zioten Donostian eginitako Gerra Kontseilu batean, matxinadarekin bat egiteagatik. Iruñea, 1943ko abenduaren 26a». Igandean, botilaz bete zuten, berriaz ere, Ezkabako gotorlekua. Memoriari eusteko. Memoria bizirik delako.



agenda



Maiatzak 27, ostirala

BISITA GIDATUAK

Pablo Sarasate museo-aretoa

Kondestable Civivoxa. 18:30. Izen-emateak doan, Civivoxetan

Maiatzak 28, larunbata

LANTEGIA

Biolinak apaintzea

Lantegia familiarrean, 5 eta 10 urte bitartekoentzat.
Kondestable Civivoxa. 11:00. Izen-emateak doan, Civivoxetan

Ekainak 2, osteguna

Zinemako heroiak

ZINEMA-FORUMA

Carmina y amén.

Ez da gomendagarria 12 urtetik behekoentzat
Iturrakamako Civivoxa. 18:00. Sarrera libre, aurrez gonbidapena hartuta

Kantu eta Hitza

KONTZERTUA

Maialen Errotabehere

Biluzik
Erraldoin Txokoa (Descalzos 72). 20:30. Sarrera libre, aurretik gonbidapena hartuta

Ekainak 4, larunbata

IPUINAREN ARETOA

Nahi dudana jaterik banu EUSKARAZ

Narratzailea: Lur Usabiaga
4tik 8 urtera bitartekoentzat, senidekoek lagunduta
Milagrosako Civivoxa. 12:00. Sarrera libre, aurrez gonbidapena hartuta

Argibide gehiago: 010 telefonoa • www.pamplona.es